

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

819

AGINDUA, 2026ko otsailaren 13koa, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Itzultzaile eta Interpreteen Koordinatzaile lanpostua izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duena.

Bilbon hutsik dago EAEko Itzultzaile eta Interpreteen Koordinatzaile lanpostua (3434 kodea, 1 dotazioa), Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 94.9 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Enplegu Publikoaren Zuzendaritzak aldeko txostena eman ondoren, sail honek erabaki du lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdia iragartzea. Hona hemen deialdiaren

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lan-kontratuko langile finkoek parte hartu ahal izango dute deialdian, bai eta EAEko Administrazio Orokorreari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako lan-kontratudun langile finkoek ere, baldin eta ebazpen honen eranskinean zehaztutako lanpostuen zerrendan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Langile horiek deialdian parte hartu ahal izango dute, edozein dela ere haien administrazio-egoera, honako kasu hauetan izan ezik:

Eginkizun-gabetze irmoan dauden lan-kontratuko langileak, egoera horrek irauten duen bitartean.

Norbere kontuetarako edo familia elkartzeko borondatezko eszedentzian egonik, lanera itzulzeko eskatzen den gutxieneko denbora (2 urte) bete ez duten langileak.

Bigarrena.– Eskabideak.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, agindu/ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

EAEko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde publikoetan lanean ari diren lan-kontratudun langile finkoek EIZU enpleguaren atariaren bidez egin ditzakete eskaerak, Jakinaren bidez eta Interneten bidez, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/funcion-publica/inicio/>

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/funtzio-publicoa/hasiera/>

Gainerako izangaiek Justizia Administrazioko Zuzendaritzara bidaliko dituzte eskabideak, erreistro elektronikoaren bidez.

Hirugarrena.— Betekizunak eta merezimenduak.

Ebazpen honen eranskinean, EAEko Itzultzaile eta Interpreteen Koordinatzaile (3434 kodea, 1 dotazioa) lanpostua betetzeko LPZn eskatzen diren baldintzak ezartzen dira.

Halaber, lanpostuaren eginkizunei eta zereginei dagokienez balora daitezkeen merezimenduak eta gaitasunak ezartzen dira.

Parte hartzeko eskabidearekin batera, «Curriculum vitae» bat aurkeztuko da. Bertan, datu pertsonalez eta dagokion talde, azpitalde edo kidegoaz gain, honako datu hauek jasoko dira:

- a) Tituluak.
- b) Administrazio publikoan, sektore publikoan eta, hala badagokio, enpresa pribatuan betetako lanpostuak, lehiatzen den lanpostuaren antzeko funtzioak eta zereginak dituztenak.
- c) Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna.
- d) Jasotako edo emandako prestakuntza-ikastaroak.
- e) Hizkuntzak.
- f) Eskatutako lanpostuari esleitutako eginkizunei eta zereginei dagokienez, egokitzen jotzen dituzten beste merezimendu eta eskumen guztiak.

Eskabidearekin batera, eskatutako betekizunen eta alegatutako merezimenduen egiaztapenak aurkeztu beharko dituzte izangaiek, baldin eta EAEko Administrazio Orokorreko Langileen Erregistroan ez badaude.

Pertsona deialdiko lanpostuaren eginkizunetara egokitzen dela bermatzeko, deialdia egin duen organoak egoki iritzitako bitartekoak erabili ahal izango ditu alegatutako merezimenduak egiaztatzeko. Horretarako, elkarriketa pertsonala edo proba egin ahal izango du, edo Giza Baliabideen Zerbitzuko organo teknikoei txostenak eskatu.

Eskatutako baldintzak deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bete beharko dira, eta esleitutako lanpostuez jabetu arte mantendu beharko dira. Parte hartzeko baldintzak betetzen jarraitzen ez duten parte-hartzaileak ezingo dira esleitutako lanpostuaz jabetu.

Laugarrena.— Ebazpena.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren agindu bidez ebatziko da deialdi hau, gehienez ere hiru hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Lanpostua esleitzen zaion pertsonak esleipen-ebazpenean zehazten den egunean jabetu beharko du lanpostuaz, eta horrek aurreko lanpostuaren titulartasuna galtzea ekarriko du, hala badagokio.

Ebazpen hori arrazoitzeko, hautagaiak deialdian eskatutako baldintzak eta zehaztapenak betetzen dituela adieraziko da, bai eta kontratua egiteko eskumena duela ere, eta monografian ezarritako lanpostuko eginkizunak eta zereginak betetzeko egokia dela adieraziko da. Horretarako, merezimenduak (eta, hala badagokio, elkarriketaren edo probaren emaitza) alderatuko dira gainerako hautagaiekin, halakorik badago.

Deialdia bete gabe utzi ahal izango da, baldin eta hautagaietako batek ere ez baditu betetzen lanpostuaren betekizunak, edo hautagaietako batek ere ezin bada egokitzen jo deialdiko lanpostua betetzeko merezimendu eta gaitasun nahikorik ez izateagatik.

Bosgarrena.— Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoa betez.

Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzien epaitegi eskudunean, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 13a.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

I. ERANSKINA

LANPOSTUAREN DATUAK

Deitutako lanpostua: EAEko Itzultzaile eta Interpreteen Koordinatzailea.

Kodea: 3434.

Dotazioa: 1.

Lanbide-kategoria: Koordinatzaile Itzultzailea.

Ordainsari-kategoria: 13.

Kokapena: Bilboko Justizia Jauregia (Buenos Aires).

Herria: Bilbao.

Hizkuntza-eskakizuna: 4.

Derrigortasun-data: –

LPZren betekizun edo ezagutza espezifikoak:

Lizentziaduna eta euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskarara zinpeko itzultzaile eta interprete gisa lan egiteko gaikuntza duena.

Goi-mailako ingeniaritza eta euskaratik gaztelaniarako eta gaztelaniatik euskararako zinpeko itzultzaile eta interprete gisa lan egiteko gaikuntza.

Arkitektura eta euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskarara zinpeko itzultzaile eta interprete gisa lan egiteko gaikuntza.

Euskaratik gaztelaniara eta gaztelaniatik euskarara zinpeko itzultzaile eta interprete gisa lan egiteko gradua eta gaikuntza.

II. ERANSKINA

BALORA DAITEZKEEN EDUKIEN PROPOSAMENA

Merezimenduak:

a) Lanbide-esperientzia (hurrenkera honetan):

EAEko itzultzaile Interpreteen Koordinatzailea.

Itzultzaile Interpretea.

Koordinazioko/buruzagitzako eginkizunak administrazioko lanpostuetan.

b) Jasotako prestakuntza espezifikoa (hurrenkera honetan):

Justizia Sailak itzultzaile interpreteentzat antolatutako barneko ikastaro espezifikoak.

Itzulpengintzaren eta/edo interpretazioaren arloko masterra/graduondokoa.

Itzulpengintzari eta/edo interpretazioari buruzko ikastaroak, jardunaldiak, etab.

Ezagutza juridikoak: Gradua Zuzenbidean, arlo juridikoko edo filologiaren arloko ikastaroak.

Itzulpen-tresnen arloko ezagutzak (Wordfast). Itzulpen-memoriak, etab. Eta dokumentu juridiko-koen itzulpenean.

Administrazio Publikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko ezagutzak.

c) Emandako prestakuntza espezifikoa:

Itzulpengintzari eta/edo interpretazioari buruzko masterrean/graduondokoan/graduan emandako irakaskuntza.

Itzulpengintzari eta/edo interpretazioari buruzko beste ikastaro, biltzar, jardunaldi... batzuetan emandako irakaskuntza.

Argitalpenak eta ikerketa:

Lan zientifikoak liburu edo artikuluetan argitaratzea, txostenak aurkeztea...

Ikerketa-proiektuetan parte hartzea.

d) Hizkuntzak:

B2 baino ingeles-maila handiagoa egiaztatzea.

Trebetasunak:

Teknikoak eta juridikoak:

a) Sistema judiziala eta araudi prozesala ezagutzea.

Arlo judizialeko eta enpresa-arloko agenteekin hitz egiteko gaitasuna.

Memoriei eta itzulpen-tresnei buruzko oinarrizko ezagutza.

b) Antolaketa- eta kudeaketa-lanak:

Lanak planifikatu eta banatzeko taldeak koordinatzea, baimenak, txandak, oporrak eta itzul-tzaile interpreteen prestakuntza kudeatzea.

Zerbitzuari buruz eskatutako txostenak eta estatistikak egitea.

Erakundearen organigrama ulertzean eta arazoei konponbideak bilatzeko gaitasunean.

Taldeko zereginak antolatzean, lana banatzean eta gatazkak adostasunez konpontzean.

Lidergo-gaitasuna, komunikazio instituzionala, kudeaketa emozionala eta etika profesionala.

Organo judizial, fiskal, gainerako eragile juridiko eta instituzionalekiko komunikazio eraginkorrean.

Zerbitzuaren barruan lankidetzaren, kohesioa eta irizpideen bateratzea sustatzeko eta zerbitzuaren barruan antolatzeko moduak hobetzeko.

Zerbitzuko pertsonen prestakuntza-garapena motibatze eta kudeatzeko eta horretarako motibatze gaitasuna.

c) Zeharkako trebetasunak:

Komunikatzeko, ekipamenduak kudeatzeko, datuak babesteko eta genero-berdintasunerako gaitasuna.

Objektibotasuna, inpartzialtasuna eta konfidentzialtasuna jarduera guztietan.